



**1/2017 akta**

**OSATEK, SA SOZIETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN AKTA, 2017KO OTSAILAREN 21EKOA.**

Presidenteak deituta, Administrazio-kontseilua osatu da Osateken egoitzan, Bilboko Bizkaia plazako eraikinean, 2017ko otsailaren 21ean, 10:00etan. Jarraian adierazita datoz bertaratu direnen izenak eta gai-zerrenda:

**BERTARATUTAKOAK:**

**PRESIDENTEA**

Ignacio J. Berraondo Zabalegui jauna

**KIDEAK**

M<sup>a</sup> Jesús Mugica Anduaga andrea

Andoni Arcelay Salazar jauna

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna

Lide Amilibia Bergaretxe andrea.

Fernando Aguirre De Miguel jauna.

Daniel Salazar Irusta jauna

Susana López Altuna andrea, idazkari lanetan

Hitza bai, baina botorik gabe bertaratu da bilerara Josu Xabier Llano Hernaiz jauna, Osatek, S.A ko zuzendari gerentea.

**GAI-ZERRENDIA:**

**I eta 2.- Kontseilari berrien aurkezpena, eta Administrazio-kontseiluaren eraketa berria.**

Osatek, S.A. ko Administrazio-kontseilu berria, ezohiko batzar orokor unibertsalak deituta, 2017ko otsailaren 15ean izan zen eta honela osatu zen: Ignacio J. Berraondo Zabalegui jauna Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuordea, bera da presidentea, eta kontseilari gisa daude: M<sup>a</sup> Jesús Mugica Anduaga andrea, Osakidetzako zuzendari nagusia, Andoni Arcelay Salazar jauna, Osakidetzako Asistentzia Sanitarioko zuzendaria, Daniel Salazar Irusta jauna, Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria, Lide Amilibia Bergaretxe andrea, Gizarte Politiketako sailburuordea, Fernando Aguirre de Miguel, sailburuorde independentea, Alberto Alberdi Larizgoitia jauna, Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Aurrekontu sailburuordea Susana López Altuna andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea, eta idazkari gisa dagoena.

### **3.- Aurrekontu proiektuaren aurkezpena**

Informazioa, Josu Xabier Llano jaunaren, Osatekeko zuzendari gerenteak eman du. Gerenteak 2017rako aurkeztutako aurrekontuen atalen edukia azaldu du. Osatekeko jarduera bakoitzari eta bere eskumenean dagoenari egin dio erreferentzia, hau da, Erresonantzia Magnetikoa, etxeko pazienteen Monitorizazio Zerbitzua eta Telelaguntza.

Gerenteak honako hauetaz jardun du: 2016an burututako jarduera nagusiak, 2017rako helburu orokorrak, eta horien kuantifikazioa, Ogasun Sailean Osatekek aurkeztutako aurrekontuan jasota dagoenaren arabera.

Aurrekontu-proiektuan jasotako atalen inguruan jardun dira bertaratutakoak.

Modu berezi batean aipatzen dira, onartuta dagoen plantilla estrukturala eta Erresonantzia Magnetikoko arloan lan egiteko behar den plantilla. Zenbait argibide egoki egin ondoren, Administrazio-Kontseiluko kideek uste dute berriz heldu behar zaiola 2016an hasitako plantillaren eguneratze-prozesuari, izan ere, gaur egun, Gobernuko Aholku Batzordean adostu gabe baitago.

Kontseiluko kideek jasotako azalpenen eta balorazioen ondoren, Gerenteari eskatu zaio Erresonantzia Magnetikoa egiteko kostu zehatzaren azterketa egin dezan.

Inbertsioen aurrekontuaren arabera Gerenteak Administrazio Kontseiluari adierazi dio zein den 2017rako Osatekerako dagoen inbertsioen planteamendua: informazio-sistemen hobekuntza ardatza izatea, makina berriak irekitzea edo lehendik dauden makinaren ordeztu batzuk jartzea.

Erresonantzia Magnetikoko makina berriak edo eguneratuak jartzeko aukerari dagokionez eta berandutze eta itxaron zerrenden egoerarekin bat etorriz, argibide edo azalpen egokiak jasó ondoren Kontseiluko kideek txosten tekniko bat egitea proposatu dute San Eloy Ospitalean Osatekeko zentro bat egiteko eta Areetan dagoen Unitatea eguneratzeko. Azken erabakia hurrengo Administrazio Kontseiluko bilerarako utzi da, txostena ikusi eta proposatu diren aukerak aztertzeko.

#### **4.- Botereak ematea eta aurrekoak baliogabetzea**

a) 2017ko otsailaren 15ean elkarteko batzar orokorrak adostu zuen Guillermo Viñegra García jaunak, Osatek S.A.ko administrazio-kontseiluko lehendakari izateari uztea eta kargu horretarako Ignacio J. Berraondo Zabalegui jauna izendatzea, beraz, egokia da aipatutako pertsonekin zera egitea: dagokionari kargua baliogabetu eta berriari botereak ematea, ordura arte bere lehendakariaren alde Elkartearen Administrazio-kontseiluak emandako botereen arabera.

Azaldutakoagatik Administrazio-kontseiluak hau adostu du:

*"Lehenengoa: Guillermo Viñegra García jaunari emandako boterea baliogabetzea eta indarrik gabe uztea, Manuel López Pardiñas jauna, notarioaren aurrean 2013ko maiatzaren 13an (protokolo-zk 1092) egiletsitako eskrituran.*

*Bigarrena: Iñaki Berraondo Zabalegui jaunaren, Administrazio-kontseiluko presidentearen alde boterea ematea Elkartearen izenean eta ordezkartzan honako hau egiteko: elkarteari komeni zaizkion ordainketa-eragiketa guztiak egitea, edozein efektu-mota edo diruren bidez eginda, baldin eta aipatutako eragiketa bakoitzeko zifra, Administrazio-kontseiluak horretarako finkatuta daukan zenbatekoa gainditzen ez badu eta jakinaren gainean egonda, aldatzea adosten ez den bitartean zenbateko hori 90.151, 82 eurokoa dela.*

*Aipaturiko eragiketetan bat eginda jokatu du Josu Xabier Llano Hernaiz jaunarekin, Elkarteko zuzendari-gerentearekin, eta eragiketa bakoitzeko zifrak aipatutako zenbatekoa gainditzen duenean, ahalordedunetako gutxienez, biren baterako sinadura eskatuko da (Iñaki Berraondo Zabalegui jauna, Daniel Salazar Irusta jauna eta Josu Xabier Llano Hernaiz jauna).*

B) Guillermo Viñegra García jauna, aurreko kontseilariaren kargu uztea eta aurrerantzean kargua hartuko duenaren izendapena egin den bezalaxe, egin behar da aipatutako pertsoneri botereak baliogabetu eta emateari dagokionez.

Azaldutakoagatik Administrazio-kontseiluak hau adostu du:

*"Lehenengoa: Daniel Salazar Irusta jauna izendatzea Kontseilari den aldetik, eta kargu horretan dagoen bitartean Kontseiluak berak ezarritako mugen barruan eta adierazitako jarraibideen arabera, honako egitekoak izango ditu:*

*Ordainketa-eragiketa guztiak egitea, edozein efektu-mota edo diruren bidez, baldin eta aipatutako eragiketa bakoitzeko zifra, Administrazio-kontseiluak horretarako finkatuta daukan zenbatekoa gainditzen ez badu eta oraingoz, aldatzea adosten ez den bitartean zenbateko hori 90.151, 82 eurokoa dela, sinadura solidarioaren bidez egingo da, eta Josu Xabier Llano Hernaiz jaunaz gain, Elkarteko zuzendari-gerentea- 22.727.708-M, NANA aldean duela, Ignacio J. Berraondo Zabalegui, Elkarteko lehendakaria bere NANA*

*aldean duela, edo Daniel Salazar Irusta jauna, Elkarteko Kontseilaria eta 44.148.408-T NANA aldean duela, beste inoren beharrik gabe. Eragiketa bakoitzeko zifrak aipatutako zenbatekoa gainditzen duenean, aipatutako gutxienez biren baterako sinadura eskatuko da.*

C) Ahalmena ematen zaie Administrazio-kontseiluko presidenteari eta idazkariari, batari zein besteari, Notarioaren aurrean agertu eta aipatutako Erabakiek eskatzen duten izen-emateak egiteko dagozkien izapideak egin ditzaten.


### **5. 11 .- Galde-eskeak**

Gai gehiagorik egon ez denez gero, 13:00etan, bilera amaitutzat eman da hurrengo deialdira arte.



IAZKARIA

Iz.: Susana López Altuna andre



PRESIDENTEA

Iz.: Ignacio J. Berraondo Zabalegui jauna